



IKASTETXEAREN PROIEKTU DIGITALA

Ikastetxearen izena:

CPEIPS Lautada Ikastola HLBHIP

Ikastetxearen kodea:

010202

Data:

2023/05/31





1. SARRERA

Ikastetxearen testuingurua

Kokapena, mailak, ikasleria, klaustroa, familien maila sozioekonomikoa eta baliabide teknologikoak, ikastetxearen ikuspegia eta baloreak...

Euskal Herriko Ikastolen Elkarteko kide da Lautada Ikastola, Arabako gazteena.

Gurasoen kooperatiba gara. Umeak euskaraz eta, besteak beste, ekitatea, errespetua, elkarrizketa, elkartasuna eta partaidetza balioak sustatuz hezi nahi ditugun guraso taldea. Euskara da erabilera etaharremanetarako hizkuntza nagusia, eta, familien eta irakasleen arteko elkarlanean oinarrituz, ume eta nerabeak euskaldun eleanitz gisa hazi eta hezi daitezzen D ereduko markoa eta baldintzak eskaintzen ditugu.

2010ean jaiotzen zen Lautada Ikastola eta gaur egun 2-16 urte bitarteko 252 ikasle hartzen ditu, lerro bakarrean, 27 irakaslez osaturiko klaustroarekin. Beraz, hezkuntza ziklo guztiak (HH, LH eta DBH) ikas daitezke ikastolatik mugitu gabe (Armentia ikastolan jarraitzeko aukerarekin).

Guztira, 160 familia aktibo eta beste hainbeste kooperatibista gara.

Bileretan parte hartzen du, eta beste ikastola guztiekin batera aurrera egiten du. Hezkuntza arloan, etengabe gabiltza programa berriak lantzen (KUKU,

KIMU, EKI DBHn eta Lehen Hezkuntzan....) eta ekonomikoki, ELKARTASUN KUTXAN parte hartzen dugu, ikastolen artean elkar laguntzeko kutxan hain zuzen ere (berezi egoera zailagoan dauden beste lurralde batzuetakoei; izan ere, Euskal Herri osoko proiektua da EHI).

Era berean, Zuzendaritza Taldean ere egonkortasuna dagoela esan dezakegu. Erreleboak "naturalak" dira, eta beti bermatzen dugu Zuzendaritza Taldeko kideren batek aldaketa graduala izatea, ez dadin hausturarik egon ikasturte batetik hurrengora eta Hezkuntza Proiektuaren jarraipena egoki egin ahal izan dadin.

Klaustroan euskal Hezkuntza Sistemari gertatzen ari den antzeko fenomenoak gertatzen ari da; datozen urteetan langile ugari jubilatuko direla aurreikusten da, eta hori dela-eta, Zuzendaritza Taldeak zein Artezkaritza Batzordeak langileen errelebo modu egokian gerta dadin neurriak hartu dira; esperientzia ez galtzeko, gazteen prestakuntza eta gaitasun handia gure proiektuan erabili ahal izateko...

Agurain Arabako Lautadan kokaturik egoteak bertako egoera soziolinguistikoa kontuan hartzea eramanen gaitu, derrigorrean: belaunaldiz belaunaldi egoera aldatzen ari den arren, gure familien tipologia nahiko erdalduna da oraindik ere. Horrek esan nahi du gure ume eta nerabeen etxeko hizkuntza edota lehen hizkuntza gaztelera dela gehienetan, arabiera, urduera edo punjabiera... beste batzuetan. Bikote mistoen presentzia (ama edo aita elebakarra, bikotekidea elebiduna) gero eta handiagoa da, batez ere, belaunaldi gazteenetan.

Gure ikastolako Hizkuntza Proiektuak euskara ardatz duen eredu eleaniztuna du helburu eta ikastolako ekintza guztietan nabaria da hizkuntza proiektuaren helburu hori. 2009-10 ikasturtean D eredua ordura arteko B eredua ordezkatzen hasi zenetik, esan dezakegu gaur egun D eredua ikasmaita guztietan txertaturik dagoela.

Ikastola garen neurrian, herriko eragile euskaltzaleekin lankidetzan

edo harremanetan gaude: udaleko euskara batzordean parte hartuz, Euskaraldiko aurreko bi edizioetan parte hartuz, orain "stand by" egoeran dagoen Lautadako Euskararen Komunitatean parte hartu, KORRIKA aurrera eramateko hezkuntza komunitate osoa inplikatur, Araba Euskaraz-en jaiak herri mailan ezagutzera emanez eta ikastolako kideen parte hartze aktiboa ahalbidetuz...

Herriko euskaltegiarekin (AEK) zein euskal kultura bultzatzen duten

beste eragileekin ere (Jaiki dantza taldea, bertso-eskola...) harremanetan gaude, proiektuak aurrera eramateko edota elkarlanean lan egiteko: gurasoentzako euskara eskolak arratsaldean, gurasoentzako euskal dantza eskolak...

Jatorriari dagokionez, gure ikastolaren ikur nagusietako bat kideen aniztasuna da; herriko aniztasunaren isla garelako esan dezakegu, ikasleen artean jatorri desberdinetako kideak ditugunez gero; marokarrak, saharauiak, kolonbiarrak, pakistandarrak...

ISEKari dagokionez ere, anizta da gure ikasleen maila (urte batetik bestera aldeak dauden arren, ebaluazio diagnostikoko azterketetan ziurra daitezkeen bezala).

HEZKUNTZA PROIEKTUA ETA METODOLOGIA

2 urtetik 16 urte bete arteko ibilbidea proiektu berean egiten dute ikastolako ikasleek, irakasle talde egonkorrez osaturiko klaustro baten eskutik. Ibilbide honen abiapuntua ikaslearen irteera profila da.

Etapa bakoitzak bere ezaugarri bereziak dituen arren, ikaslea ikastolan egiten duen ibilbidean zehar, proiektu hezitzaile batek

gidaturiko metodologian eta planteamendu pedagogikoan murgiltzen da.

DBH guztia EKI metodologiaren baitan ardazturiko planteamendu pedagogikoaren arabera antolaturik dago eta Lehen Hezkuntzan ere EKI LH inplementatzeko lan egin dugu azken urteetan (LH3ra arte). Kuku eta (H)izan dira txikitxoeren taldeetan martxan dauden proiektuak.

Horiez gain, beste hainbat proiektu pedagogiko ere martxan ditugu, haietako asko Berritzeguneko formakuntzetatik jasotakoak (Bikoteka Irakurtzen, Besoetakotze proiektua...) zein Ikastolen Elkarteko mintegietatik jasotakoak. (PLASTIKA EKiko planteamendua...).

Gelatik haratagoko espazioen erabilera hezigarria helburu, jolastokien antolaketa ere aniztasunaren eta hezkidetzaren printzipioen arabera egiten da etapa guztietan.

Proiektu pedagogiko berritzaileen artean kokatu beharko genuke Teknologia eskoletan aurrera egiten den dinamika, zeinarengatik 2021-22 ikasturtean STEAM zigilua jaso duen gure ikastolak.

Aguraingo beste bi ikastetxeekin eta haurreskolarekin aldizkako koordinazioak ere egiten ditugu, ohikoa delako Haurreskolako ume batzuk gure ikastolara etortzea edota DBH amaitu ondoren Aniturri institutura joatea Batxilergoa egitera (gehiengoa), Oinarrizko Lanbide Heziketa egitera (banaka batzuk).

Azpiegiturak

Ikastetxearen hornikuntza teknologikoa, konektibitatea, plataformak, zerbitzu digitalak eta mantenua...

Ikastolan duzuen azpiegituraren azalpen laburra:

Gailuak

Ikasleak:

LH1-LH4 → karrito batean garraiatzeko aukera duten windows sistema operatiboa duten portatilak

LH5 → Ikasle bakoitzari urte osorako windows sistema operatiboa duten portatil bana uzten zaio, etxera ezin dute eraman

LH6-DBH4 → Ikasle bakoitzak bere chromebooka du, etxera eramateko aukera dute egunero. Beharrezkoa dutenean informatika gelan Windows sistema operatiboa duten portatilak dituzte

Irakasle eta langileen gailuak:

Behar duen irakasleari chromebook edo windows sistema duen portatila eskeitzen zaio ikasturte osoan bere erabilera pertsonalerako.

Geletako PC finkoak:

-Ingeles gelan, bideo gelan, logopedia gelan, musika gelan, behar berezitako bi geletan, HH eta LH gela bakoitzean mahai gaineko pc bat dago.

-Informatika gelan windows sistema operatiboa duten 30 portatil daude denen eskura

-Idazkaritzan windows sistema operatiboa duten mahai gaineko 2 ordenagailu daude

-HH mintegian windows sistema operatiboa duten mahai gaineko 3 ordenagailu daude

-LH mintegian windows sistema operatiboa duten mahai gaineko 2 ordenagailu daude

-DBH mintegian windows sistema operatiboa duten mahai gaineko 2 ordenagailu daude

- Informatika gelan windows sistema operatiboa duten 30 portatil daude

Ikastolako zerbitzaria

-Ikastola kudeatzeko erabiltzen den windows server sistema operatiboa duen mahai gaineko ordenagailu bat dugu, site bateria du argi indar segurtasun moduan

Ordezko gailuak

-Ikastolan hainbat mahai gaineko ordenagailu (zaharrak) eta chromebook ditugu ordezko moduan jartzeko beharrezkoa balitz

Gainerako ekipamendua

Arbela digitalak eta proiektoreak

-HH eta LH gele guztietan daude arbela digitalak
- Ingeles gelan, liburutegian, teknologia gelan, bideo gelan eta balio anitzeko gelan proiektoreak ditugu. Hauek ez dira finkoak, gelaz mugitzeko aukera dugu

3D inprimagailuak

-Informatika gelan 3Dko 2 inorimagailu ditugu, bat delta eta beste kartesiarra

Konektibitatea

-Ikastola osoan konektibitate egokia bermatzeko, movistar enpresarekin kontratatuko 2 zuntz kontratu ditugu. Bi router hauez gain, beste 11 sarrera puntu ditugu, hauei esker wifi sarea ikastola osora heltzea lortzen dugu

-Segurtasun neurri gisa, windows defender erabiltzen dugu. Esan ere windows sistema duen ordenagailu oro izoztua dagoela, hau da, itzali ondoren berriz piztean informatikariak utzitako moduan geratzen dira.

-Kable sare osoa identifikatua dago, hau da, urteak dituen arren, kablez kable indentifikazioa eginga dago. Swicht edo rac aparatuek abiadura handiagoko batzuek aldatzeko intentzioa dago ekonomiko momentu egokia denean edo matxuratzeko direnean

-Wifi sareak ikastola osoan daude sakabanatuak. Informatika gelan 2 sare ditugu, bertako portatilentzat, idakaritza gunean beste sare bat eta ikasleen geletan 9 sare ezberdin gune guztiak hornitzeko

Bozgoragailuak

-Ikastolak 2 bozgoragailu mugikor eta musika ekipo finko bat du

Fitxatzeko makina eta alarma

-Ikastolak sarreran fitxatzeko gailua du

-Segurtasun modua alarma kontratatua du eta internetetik kontrolatzen da

Plataforma eta zerbitzu digitalak

-Gestio aplikazioak: Alexia

-Google kontuak erabiltzen ditugu gure korreo eta elkarlanerako. Classroom, drive eta beste aplikazioetan egitura handiak sortuak ditugularik

Mantenua

-Mantenuko ikastolak irakasle bat du liberatua 6 orduz IKT arduradun moduan.

-Ez dago kanpo enpresik

-Mantenu prebentiborako plana existitzen da. IKT arduradunak antolatu eta betetzen du

-Etorkizunerako beharrezko beharrei aurreikuspenak IKT arduradunak egiten ditu eta gero zuzendaritza taldeari eta artezkaritzako partaideei proposatzen dizkie

Proiektuaren justifikazioa

Proiektuak nola lagunduko dio ikastetxeari eta zergatik parte hartzen da.

DIGITALIZAZIO PLAN BERRIA: SARRERA

Dagokigun marko legal europarrean jasotzen den bezala, informazio- eta komunikazio-teknologiaren erabilera orokortuak,

eguneroko bizitzako hainbat alderditan, aldaketa sakonak azkartu ditu errealtatearen ulermenean eta bertan konprometitzeko eta parte hartzeko moduan, norberaren nortasuna eraikitzeko eta bizitzan zehar ikasteko gaitasunetan, kulturaren eta bizikidetzaren demokratikoan, besteak beste.

Ikuspegi-aldaketa horrek teknologiaren eragin pertsonala eta soziala, eragin hori emakumeengan eta gizonengan desberdina dela eta teknologien, pertsonen, ekonomiaren eta ingurumenaren arteko harremanari buruzko hausnarketa etikoak ere behar du, ikasleen kompetentzia digitalean zein irakaskuntzako kompetentzia digitalean garatuko dena.

Ondorioz, beharrezkoa da hezkuntza-sistemak errealtate sozial horri erantzutea eta gaitasun digitalaren ikuspegi modernoagoa eta zabalagoa txertatzea, etengabeko ikaskuntzarako funtsezko gaitasunei buruzko Europako gomendioekin bat etorriz.

Proposamenak, halaber, gure gizarteetan gertatzen ari den aldaketa digitala kontuan hartzeko beharra azpimarratzen du, aldaketa horrek nahitaez eragiten baitio hezkuntza-jarduerari. Beraz, Gaitasun Digitala garatzea funtsezkoa da irakasleak eta ikasleak agertoki berrietan moldatzeko, ikasleek XXI. mendeko trebetasunak eta gaitasunak garatu ahal izan ditzaten, eta irakasleek irakatsi eta ikasteko prozesuak hobetu eta modernizatu ahal izan ditzaten. Horregatik, ikastolatan egiten diren hezkuntza-ekintza guztiek trinomio zatiezina osatzen duten oinarriko hiru zutabe bermatu behar dituzte: pedagogia, teknologia eta gune inspiratzaileak, non elementu bakoitzak gainerakoekin duen loturagatik bakarrik duen zentzua.

Bestalde, eten digitalak (gailuetara iristeko zailtasuna eta konektibitatea) agerian utzi ditu ikasleen eta familien desberdintasunak eta gizarte- eta hezkuntza-ahultasuna. Ondorioz, guztiontzako gailuak eta konektibitatea lortzea izan da gaur egungo hezkuntza-politiken lehentasunezko helburuetako bat, kalitatezko hezkuntza inklusiboa eta ekitatiboa bermatzeko eta pertsona guztientzako etengabeko ikaskuntzarako aukerak sustatzeko. Ikastolaren plan digitalak, bere jardueren artean, desberdintasunak konpentsatzeko eta arrakala digitala murrizteko estrategiak jaso behar ditu, eta, horretarako, hezkuntza digitala erraztu behar du hainbat agertokitan (aurrez aurreko irakaskuntza eta urrutiko irakaskuntza), eta konektagarritasuna duten gailuak jarri behar ditu ikasleen eskura.

Azkenik, ikasleek teknologia digitalak erabiltzeko, prestakuntza egokia behar da herritartasun digitalean, teknologia horiek behar bezala erabili eta gozatzeko, eta, alde batetik, erabat, seguru, osasuntsu eta arduratsu ibiliko direla bermatuko da, eta, bestetik, datu pertsonalak eta norberaren eta besteen eskubide digitalak babestuko direla. Ikasleen garapen integralerako funtsezko alderdi horiek ikastolako plan digitalaren helburuak ere izan behar dute.

IKASTOLAREN PLAN DIGITALA: OINARRIZKO KOKAPENA

Ikastolaren plan digitala Hezkuntza Proiektuan integratuta egon behar duen plangintza-tresna bat da, LOMLOEren artikulua bakarrean jasotakoaren arabera. "Ikastolaren hezkuntza-proiektuak, halaber, ikastolaren estrategia digitala jasoko du", hezkuntza-komunitatearen gaitasun digitala garatzeko, berrikuntza sustatzeko eta informazio- eta komunikazio-teknologiei eta hezkuntza-baliabide digitalei ahalik eta etekin handiena ateratzeko.

Plan hori hezkuntza-komunitateko sektore guztien parte-hartzearekin eraiki behar da, proiektu partekatua izan dadin. Era berean, aipatutako legearen hamargarren xedapen gehigarriaren arabera, larrialdi-egoerentzako Kontingentzia Planak ikasleen eta irakasleen gaitasun digitala bermatuko duten neurriak jasoko ditu, eta, ahal den neurrian, murriztu egingo ditu sartzeko eta erabiltzeko eten digitalak, bai eta curriculumeko elementuak eta curriculumaren alderdi konpetenzialenak ardatz dituzten programazio didaktikoak berrikusteko aurreikuspenak ere.

Ikastolaren plan digitalak aukera eman behar dio hezkuntza-komunitateari ikastola nora iristea nahi duen ikusteko, gaur egun non dagoen ulertzeko eta egoera batetik bestera eramango duen bidea marrazteko.

Orientazio horiek Europako Batzordearen Ikerketa Zentro Bateratuak (JRC, Joint Research Centre) garatutako Digitaliki Eskumena duten Hezkuntza Erakundeentzako Europako Esparrua (DigCompOrg) kontuan hartuta egin dira.

Ikastolaren Plan Digitala bitarteko digitalen erabilera erraztu eta bultzatu behar duen tresna da, bai irakatsi eta ikasteko prozesuetan, bai ikastolako gainerako kudeaketa-prozesuetan, betiere ikasleen garapen integralean laguntzeko azken helburuarekin. Horregatik, hezkuntza-proiektuan, zuzendaritza-proiektuan eta urteko programazio orokorrean integratuko den tresna izan behar du. Gainera, ezinbestekoa da eskura dauden baliabide pedagogiko digitalen erabilerari buruzko ikastolaren ikuspegia ematea Plan Digitalari, haren aukerak ahalik eta gehien aprobetxatzeko, hezkuntza-komunitateko kide guztiek partekatutako proiektua izan dadin, koherentzia eman dezan eta teknologien erabilera gidatu dezan. Hezkuntza Proiektuaren, Zuzendaritza Proiektuaren eta Urteko Programazio Orokorraren (PGA) parte den tresna izango da.

IKASTOLAREN PLAN DIGITALAREN JUSTIFIKAZIOA: GOGOETA ETA PRAKTIKA TEKNOLOGIKO BATEN BILA

Ikastolaren Plan Digital berri honen diagnostikoaren lehen helburu bat, egungo irakaskuntzan berrikuntza digitalekiko dagoen jarrera aztertzea eta ulertzea izan behar du. Jakin badakigu, gizartearen aldaketak eta berrikuntzak etengabe gertatzen ari direla, baina horiek hezkuntzara egokitu behar direla, etorkizuneko herritarrak izango diren ikasleak hezteko baita irakasleon zeregin nagusia, datozen aldaketak datozela.

Azken finean, aldaketa horiek guztiek eragina dute materiala, edukiak, antolamendua... bezalako esparruetan, eta aitortu behar dugu horietara egokitzeko irakasleek esfortzu gehigarria egin behar dutela. Alferrikakoak dira berrikuntza horiek irakasle-taldea aldaketa horietara egokitzen ez bada, horrela nekez landuko baitituzte ikasleekin landu beharrekoak. Eta aipatutako berrikuntza digitalekiko ikuspuntua oso aldakorra da irakasleen artean: batzuk beharrezkoak ez direla eta kaltegarriak direla pentsatzen duten bitartean, beste batzuek lagungarriak eta aberatsak direla uste baitute. Kontraesankorra gerta daiteke haurren eguneroko bizimodua baldintzatzen duten berrikuntzekiko jarrera ezkorra eta pasiboa izatea, eta esan bezala, horren zergatiaren inguruko gogoeta kritikoa egitea da gure lanaren helburu nagusi bat.

Gizartearen izan den iraultza (teknologiko) eraldakorrenetariko baten testigu gara; une oro aldatzen eta berreraikitzen den gizarte baten iraultzaren testigu, eta sarri ez espresuki ongi planifikatua. Espazioa globalizatuz eta aldi berean deslokalizatuz doa; halatan, mikroistorio, mikro-kultura eta mikrosegundoen aroa sortu da, mikrolanentzako eta big data ekonomiarako

sarbidea emango diguna.

Bien bitartean, transformazio multidimentsional bat gertatu da, globala, trans-historikoa eta multimodala. Eta azpimarratzekoa da horrek guztiak etorkizuneko gizartean gain eta hezkuntzan izan duen eta izango duen eragina. Izan ere, oin digitalen gaineko berregituraketa batera zuzentzen bada gizartea, etorkizuneko herritar izango direnei laguntzeko aukerak sortu beharko ditu hezkuntzak.

Badirudi hezkuntzaren eta gizartearen arteko binomio historikoa inoiz baino garrantzitsuagoa dela. Aspaldi adierazi zen gizarte eredu berri batera aldatzeko giltza hezkuntza prozesuetan dagoela eta bien arteko elkarrekintza ezinbestekoa dela.

Hezkuntzaren helburuetako bat zera da: etorkizunean ikasleek beharko dituzten gaitasunak garatzeko espazioak eta denborak eraikitzea. Digitalizazioaren eraginez, ordea, oso aldakorra bihurtu da orain arte estatikoa izan den ikastearen kontzeptzioa.

Testuinguru horretan, garrantzi berezia hartu dute adimen artifizialak eta big datak, bai eta horiek susta dezaketen hezkuntza pertsonalizatuak ere. Azken egitasmo gisa, proiektu honetan, ibilbide horri heltzen ahaleginduko gara: gizartetik hasi, eta etorkizunean hezkuntzan eragina izan dezaketen baliabideen azterketa sailkatuz.

Hainbaten ustez, irakaspraktikak teknologiaren beharra du eta orain da teknologiak eta hezkuntzak, ikuspuntu kritiko batetik, bat egiteko unea. Ikuspuntu kritiko hori, besteak beste, ezagutzak dakar, Amaia Arroyoren iritziz; «ulertu behar dugu teknologia ez dela neutroa eta gu behar gaituela (gure balioak, gure ideiak, gure jakintza) gizartearen garapena osasuntsua eta etikoa izan dadin. Hortik dator ikuspegi kritikoaren beharra».

Teknologiak aukerak eskaintzen dizkigu, bai, baina arriskuak ere hor daude. Esaterako, arriskuen aurrean araudiak, jokabideak eta esku-hartzeak nolakoak izan daitezkeen ezagutu behar dugu; gertatu aurretik saihesteko edota gertatzean esku hartzeko. Arriskuei buruzko informazioa izatea behar-beharrezkoa da; baina aukeren inguruko informazioa ere oso garrantzitsua dela deritzogu. Izan ere, teknologiaren ikuspegi positiboa landu nahi dugu ikastolaren proiektuan.

Gaur egun teknologia-erabilerarako testuinguru pedagogikoak zein diren, konpetentzia digitalak zer diren, e-learning testuinguruetarako oinarriak zeintzuk diren, hezkuntza digitalerako baliagarri diren hainbat tresna eta aplikazioen berri, teknologiak jendartean eta hezkuntzan duen eragina, hizkuntzen i(r)a)kaskuntzaren eta teknologiaren arteko loturak eta berrikuntzak zein ikerketa digitalen ingurukoak bildu daitezke. Askotariko gaiak, beti ere ikuspuntu pedagogikoa ipar hartuta.

Adituen ustez, irakaspraktikak teknologiaren beharra du eta orain da teknologiak eta hezkuntzak, ikuspuntu kritiko batetik, bat egiteko unea. Teknologiak berrikuntza ekarri behar dio hezkuntzari, batetik, ikaskuntzan egin beharreko atazak lagunduz edo hobetuz, hots, aurrez aurreko ikaskuntzako kalitatea hobetuz eta, bestetik, ikaskuntzari balio erantsia emanez; hau da, testuinguru digitalean zentzu handiagoa duten atazak eta metodoak bultzatuz.

Baina nola garatuko dugu ikuspuntu kritiko hori, euskal jendartean dauden arazoak aztertu eta horietako zenbait gabezia bete gabe, nazioartean egiten ari direna kontuan izan gabe? Galdera horiei erantzuteko, ezaugarri hauek izango lituzkeen hezkuntza irudikatu behar dugu etorkizun handiko egitasmo honen hasiera honetan, online irakaskuntza eta baliabide digitalak ere kontuan hartuz: inklusioa, ubikuotasuna, ikasmaterialen aniztasuna eta moldagarritasuna, arreta pertsonalizatua eta euskal curriculum implementatzeko aukera, besteak beste. Eta jakina, teknologiak dituen aukerak aipatzeaz gain, berekin dakartzan arriskuak ere kontuan izan beharko ditugu.

Eta amaitzeko, ez dezagun ahaztu “IKTak eta konpetentzia digitalak hezkuntzan” proiektua mardula izan arren, hezkuntza komunitatean partekatua eta, horregatik, irakurterraza izan behar duela. Hauxe bere beste erronka deigarria da, bere horretan.

Elaborazio prozesua eta lan-taldea

Lehentasunak zehaztu.

Planifikazio maila zehaztu.

Nor izango da eragilea?

Planaren garapena Ikastolen Elkarteak izendatutako mentore talde batek gidatuta garatu da. Gure mentorea, gure digitalizazio batzordearekin elkarlanean jardutako du eta bere gidaritzapean ibili gara.

Gure digitalizazio batzordeari dagokionean, buru bezala eta mentorearekiko kontaktu zuzen moduan, zuzendaritza taldea eta IKT arduraduna daude. IKT arduradunak mentoreak eskeinitako informazioa zuzendaritza talde osoari eta klaustro osoari zabaltzeko funtzioa eduki du eta proiektuaren buru eta bultzatzailea izan da, nahiz eta egitekoak garatzeko orduan, funtzioa zuzendaritza talde osoarena izan den.

Proiektuaren planifikazioari dagokionean, bidelagunak bideratutako denboralizazioari jarraituz eta eskainitako laguntza eta ereduak kontuan hartuta, ondorengo prozesua garatu da:

1 - Egoeraren argazkia:

Urrian zehar eta “Selfie for School” tresna erabilia, Ikastolako irudia zein den jaso zen, ikasle, irakasle eta zuzendaritza esparruan bideratu beharreko galdetegi batzuen laguntzaz. Galdetegi horien bitartez, esparru ezberdinetako errealitatearen islada jaso zen, Ikastolako LH eta DBHko egoeraren txosten bat lortuta.

2 - Analisisa:

Azaro eta abenduan zehar, aurreko atalean jasotako txostenen analisiari ekin zitzaion. Horrela zuzendaritza taldetik, etapa

bakoitzeko txostena aztertu eta elementu esanguratsuenak identifikatu eta estamentu ezberdinen arteko adostasun mailak ikertu dira. Guzti honen bitartez, azken pausoa, etapa desberdinen arteko ondorio eta laburpenak lortzea izango da eta horiek baliatuko dira AMIAren taula osatu eta honen ondorioak zehazteko.

3 - Helburuak

Urtarrila eta otsaila bitartean, AMIA taula eta honen ondorioak oinarritzat hartuta, zuzendaritza taldeak plan digitalean ezarriko diren helburuak zehaztuko ditu. Helburu horiek gehienez 2 urteko epean eskuratzeko helburu errealak izan beharko dute.

4 - Ekintzak

Otsaila eta martxoa bitartean, zuzendaritza taldeak, zehaztutako helburuak eskuratu ahal izateko aurrera eraman beharreko ekintzak zeintzuk diren finkatuko ditu. Ekintza horiek garatuko dira eta zein epetan garatuko diren eta jarraipena nola egingo den ere finkatuko da.

5 - Dokumentuaren garapena

Apirila eta maiatza bitartean, dokumentuaren idazketari ekingo zaio, eskeinitako txostenaren baitan. Horrela ekainean aplikatibora igo ahal izateko.

6 - Publikatzea

Ekainaren 16a baino lehenago, digitalizazio batzordearen buruak, IPDa aplikatibora igoko du.

Proiektu Digitalak Hezkuntza Proiektuari eta Urteko Planari egiten dion ekarpena

AZALPENA

Atal honetan, Proiektu Digitala kokatu behar da ikastolako testuinguru zabal batean. Testuinguru hori ikastolaren Hezkuntza Proiektuan eta Urteko Planean zehazten da. Beharrezkoa da dokumentu horiek bat etortzea eta guztiz osagarriak izatea. Hau da, IPDak ez du izan behar independentea den dokumentu bat baizik eta ikastolaren kudeaketaren barruko elementu bat.

22-23 Urteko planean horien lanketa egingo zela aipatu zen eta 22-23 ikasturteko memorian bere garapena eta lortutakoa aipatuko da.

23-24 ikasturterako planean ere adieraziko da eta bere garapenaren jarraipen bat egingo da.

Kontutan hartuko da etapa bakoitzeko beharrak eta digitalizazio plana hauei egokituko zaie.

Urteko planak ikastola osoari eragiten dio eta zuzendaritzaren jarraipena eta ebaluazioa dauka, hala nola ikastola komunitate osoaren berrikuspena (artezkaritza, familiak, langileak eta ikasleak). Hortaz, proiektu digitalean definitutakoak jarraipen zehatza izango du komunitate osoaren bidez.

Hori horrela, ikastolako proiektu digitala erabat integratuta egongo da ikastolako kudeaketa testuinguru orokorrean.



2. IKASTETXEAREN EGOERAREN ANALISIA

Errealitatearen azterketa, prozesuetan IKTen erabileraren gaineko hausnarketa.

SELFIE edo beste autoebaluazio tresna batetik jasotako emaitzen hausnarketa.

Etapa bakoitzeko elementu esanguratsuenak, balio altuenak dituztenak eta baxuenak.

HH-LH

LHn (4tik gora)

Ikaskuntzarako gailu digitalak, Hezkuntzako online baliabideak, laguntza teknikoak, portaera arduratsuak, komunikatzen ikastea, azpiegiturak, irakaskuntzako gailu digitalak, portaera segurua, interneterako sarbidea

LHn (2,5etik behera)

Urruneko irakaskuntza eta ikaskuntza, bizipenak partekatzea, EPP beharrak, irakaskuntza digitala aztertzeke....

DBH

DBHn (4tik gora)

Hezkuntza komuniarekin komunikazioa, irakaskuntzako gailu digitalak, kodetzen edo programatzen ikasten, laguntza teknikoa, portaera arduratsua, informazioaren kalitatea egiaztatzea, eduki digitalak sortu, komunikatzen ikasi, arlo desberdinetarako trebatasun digitala, estrategia irakasleekin garatu, elkarlana, irakaskuntzarako gailu digitalak, irakaskuntzako modalitate berriak, aurrerapenaren ebaluazioa, hezkuntzarako online baliabideak, ikaskuntzarako ingurune birtualak erabili, portaera segurua eta urruneko irakaskuntza eta irakaskuntza

DBHn (2,5etik behera)

EPP beharrak eta irakaskuntza digitala aztertzeke

Etapa bakoitzean, estamentu desberdinen arteko diferentziak eta adostasunak.

HH-LH

Zuzendaritza- irakasle-ikasle (LH5-LH6)

Desadostasunak : EPP zuzendaritza kideek 2,5 eta irakasleek 4 jarri dute.

Desadostasunak: Estrategia digitala

Zuzendaritza kideek 2,5 eta irakasleek 3,7 jarri dute.

Adostasunak: Irakaskuntzarako gailu digitalak

Zuzendaritza kideek 5 eta irakasleek 4,3 jarri dute.

Hezkuntzarako online baliabideak

Zuzendaritza kideek 5 eta irakasleek 4,3 jarri dute.

DBH

Zuzendaritza- irakasle-ikasle (DBH osoa)

Desadostasunak : Teknologiaren abantaila eta desabantailen inguruko eztabaidak ematea.

Zuzendaritza kideek 2 eta irakasleek 3,4 eta ikasleek 3,7.

Desadostasunak: Datuen babesa

Zuzendaritza kideak 2 eta irakasleek 4,3 jarri dute.

Adostasunak: Beste ikasle batzuei ohar konstruktiboak ematea

Zuzendaritza kideek 3 eta irakasleek 3,1 eta ikasleek 3,3.

Irakaskuntzarako gailu digitalak

Zuzendaritza kideak 5 eta irakasleek 4,9 ikasleek 4,2.

Etapa desberdinen arteko ondorioak edo laburpenak, etapan arteko desberdintasun eta adostasunak adieraziz.

ONDORIOAK

1. Erabilera

Irakaskuntzarako gailu digitalak erabiltzeko aukera irakasle guztiek berdina dugu, baina ikasleen adin desberdinak kontuan izanda, guztiak ez dira berdin erabiltzen .

2. Hezkuntzarako online baliabideak

Eguneroko beharren arabera erabileran desberdintasunak daude, izan ere, batzuk ikasleekin egin behar dira.

Haur Hezkuntzan klaseko ordenagailua hainbat momentutan beraien eskura dute. Bertan beraienez instalatutako programak erabili ahal izateko.

LH4 mailara arte modu bideratuan egiten da, ez dute ikastordu guztietan gailuetara izateko aukerarik. Irakasleak bideratzen dien ariketetan soilik sartzen dira.

LH5 mailatik aurrera, ikasleek berezko korreoa dute eta horrek lanak era autonomoan kudeatzeko aukera ematen die.

Hau guztia kontutan hartuta uste dugu, ebaluazio-jarduketak (G puntua) era desberdinean baloratu izanaren arrazoa. Izan ere desberdinak izan dira LH eta DBHko irakasleen artean.

Bestetik, zuzendaritzako kideen partetik (LHn) baloratzen da Etengabeko Prestakuntza Profesionalaren inguruan gehiago behar dugula balortzen da, baina ikuspegi hori ez da konpartitzen beste irakaslegoaren partetik.

Bukatzeko, aipatzea adostasun maila altua erakutsi dugula etapa ezberdinetan, goian komentatu bezala, gailu digitalen erabilpen altuan.

AMIA analisia

Indarguneak, ahultasunak, aukerak eta mehatxuak.

Faktore negatiboak

Ahuleziak (barne-faktoreak)

Orain arte ez dugu izan estrategia adostu bat planifikazioan.

Mehatxuak (kanpo-faktoreak)

Formakuntzaren inguruko ikuspegi ezberdinak ditugunez, honek eraman ahal gaitu espektatiba desberdinak edukitzera. Horrela, lankideen artean desorekak egotea sustraitzera

Faktore positiboak

Indarguneak (barne-faktoreak)

Ikaskuntzarako gailu digitalak.
Etapaz etapa hezkuntzak eskatzen dituen behar digital guztiak ongi bermatuak ditu ikastolak .
Azken urte hauetan pandemiak eta egoerak bultzatuz gaituzten digitalizazio prozesu honetan ondo babestuak egon gara eta egokitzeko aukera ona izan dugu.

Aukerak (kanpo-faktoreak)

Digitalizazio formakuntzari esker guztiok konpetentzia digitala hobetuko dugu eta honek oinarri komun bat bermatzen du.

Autoebaluazioaren ondorioak

Hausnarketa eta **AMIA** tresnatik ateratako ondorioak.

Indarguneak optimizatu aukerak areagotzeko

Eskakizun guztiei eman diegu erantzuna eta berdin jarraituko dugu.

Gailuak beharrezkoak izatekotan Ikastolak behar horiek asetuko lituzke irakasleen formakuntzan ardatz moduan hartzen jarraituko dugu.

Klaustro moduan hezkuntzan etapa desberdinetan eskatzen dituen behar guztiei erantzuna emateko.

Ahuleziei aurre egin aukerak aprobetxatzeko

Ikasturte honetan zehar osatzen ari garen ariketa kolektibo hau baliatuko dugu, hemendik aurrerako bidea konpartituagoa izateko eta langile guztiek ulertzeko zeintzuk izango diren hurrengo urratsak.

Indarguneak optimizatu mehatxuak indargabetzeko

Orain arte egindakoa balorean jarriko dugu, eta egindako ibilbide guztiaren jakitun izango gara. Egindako lanak zer garrantzi izan duen baloratzerakoan, ditugun hutsuneak errazago ikustarazi ahalko ditugu.

Ahuleziei eta mehatxuei aurre egin

Interneten erabilera desberdinak kudeatzen ikasi eta identifikatzen erakutsi behar da.



3. HELBURUAK ETA EKINTZAK

LG Lidergoa eta gobernantza

Helburua

HH, LH eta DBH etapetan teknopedagogiarekin lotutako baliabideak aztertu eta formakuntza plan bat garatu 2023-2024 ikasturtean irakaslegoaren %80ak formakuntza hauek jaso ditzan.

Deskriptorea	Epea	
LG 2.4 Aro digitaleko ikaskuntza lerrotaturik dago lehentasun zabalagoekin	2024/06/30	
Adierazlea	Mota	Helmuga
LG 2.4 A1 Ikastetxeak, hautemandako beharren arabera, gaitasun digitalei buruzko prestakuntza-jardu	Ehunekotan	80

Ekintzak	Baliabideak	Arduradunak	Epea	Egoera
Etapako bakoitzeko formakuntza beharrak aztertu.	Google galdetegiak, behaketak, koordinatzaileekin hitz egin	zuzendaritza taldea eta IKT arduraduna	2023/06/29	Prozesuan (%80-99)
Etapako bakoitzeko emaitzak aztertu eta formakuntzak erabaki.	Baliabide hauen softwareak, internet, gure google domeinuko kontuen aplikazioak eta informatika gelako gailuak	zuzendaritza taldea eta IKT arduraduna	2023/09/15	Hasita (%1-19)
Formakuntza plan bat garatu.	Baliabide hauen softwareak, internet, gure google domeinuko kontuen aplikazioak eta informatika gelako gailuak	zuzendaritza taldea eta IKT arduraduna	2023/09/15	Detektatua
Plana klaustroan aurkeztu.	Google kontuko aurkezpenak	zuzendaritza taldea eta IKT arduraduna	2023/09/29	Hasita (%1-19)

II Irakaskuntza eta ikaskuntza

Helburua

--

Deskriptorea

Epea

--	--

Adierazlea

Mota

Helmuga

--	--	--

Ekintzak

Baliabideak

Arduradunak

Epea

Egoera

--	--	--	--	--

GP Garapen profesionala

Helburua		
Irakasleen prestakuntzak aurrera eramatea maila guztietan, etapa bakoitzeko (HH-LH-DBH) irakasleen % 80k teknopedagogiarekin lotutako bi baliabide berriren formakuntza jaso eta 2023-2024 ikasturtearen azken hiruhilekoan erabiltzen hasteko.		
Deskriptorea	Epea	
GP 1.3 EGPa lerrokaturik dago banakako eta antolaketako premiekin	2024/06/30	
Adierazlea	Mota	Helmuga
GP 1.3 A2 Ikastetxeak prestakuntza- edo lan-saioak antolatzen ditu irakasle-taldearentzat, ezagutza ho	Bai/Ez	Bai

Ekintzak	Baliabideak	Arduradunak	Epea	Egoera
Etapa bakoitzeko bi baliabide aukeratu eta ikastaroa garatu.	Baliabide hauen softwareak, internet, gure google domeinuko kontuen aplikazioak eta informatika gelako gailuak	zuzendaritza taldea eta IKT arduraduna	2024/06/01	Detektatua
Formakuntza planaren egutegia zehaztu eta irakaslegoari jakinarazi.	gure google domeinuko kontuen aplikazioak	zuzendaritza taldea eta IKT arduraduna	2023/09/29	Detektatua
Formakuntzak aurrera eraman etapa bakoitzean.	Baliabide hauen softwareak, internet, gure google domeinuko kontuen aplikazioak eta informatika gelako gailuak	zuzendaritza taldea eta IKT arduraduna	2024/01/19	Detektatua
Formakuntzen balorazioa burutu.	gure google domeinuko kontuen aplikazioak (galdetegiak)	zuzendaritza taldea eta IKT arduraduna	2024/02/16	Detektatua

EJ Ebaluazio jardunbideak

Helburua

--

Deskriptorea

Epea

--	--

Adierazlea

Mota

Helmuga

--	--	--

Ekintzak

Baliabideak

Arduradunak

Epea

Egoera

--	--	--	--	--

EC Edukiak eta curriculuma

Helburua

--

Deskriptorea

Epea

--	--

Adierazlea

Mota

Helmuga

--	--	--

Ekintzak

Baliabideak

Arduradunak

Epea

Egoera

--	--	--	--	--

EN Elkarlana eta networking-a

Helburua

--

Deskriptorea

Epea

--	--

Adierazlea

Mota

Helmuga

--	--	--

Ekintzak

Baliabideak

Arduradunak

Epea

Egoera

--	--	--	--	--

AZ Azpiegiturak

Helburua

--

Deskriptorea

Epea

--	--

Adierazlea

Mota

Helmuga

--	--	--

Ekintzak

Baliabideak

Arduradunak

Epea

Egoera

--	--	--	--	--

IB Ikastetxeko berariazkoak

Helburua

Ikastolako zerbitzari fisikotik zerbitzari digitalera dokumentazioa migratuta edukitzea 2023-2024 ikasturtearen amaierarako irakasle zein administrazioko langileria %100a zerbitzari digitalean lan egiteko.

Deskriptorea	Epea
IB 1.1 Zerbitzari digitalera migrazioa gauzatu da.	2024/06/28

Adierazlea	Mota	Helmuga
IB 1.1.1 Dokumentazioaren %100 digitalki eta lainoan dago.	Ehunekotan	100
IB 1.1.2 Irakasle goa eta pertsonal goak lainoan lan egiteko jarraibideak jaso ditu.	Bai/Ez	Bai

Ekintzak	Baliabideak	Arduradunak	Epea	Egoera
Zerbitzari fisikoan dagoen informazioa identifikatu eta sailkatu.	Drive	Irakasle eta administrazioko langile go guztia	2024/06/01	Prozesuan (%60-79)
Zerbitzari digitala konfiguratu eta migrazioarako prestatu.	Drive	Irakasle guztiak	2024/06/01	Prozesuan (%60-79)
Migrazioarako plana osatu eta datak zehaztu.	Drive	Irakasle guztiak	2024/06/01	Prozesuan (%60-79)
Migrazioa burutu.	Drive	Irakasle guztiak	2024/06/01	Prozesuan (%60-79)
Irakasle goari eta pertsonal goari horren berri eman eta zerbitzari digitalean aritzeko formakuntzak/jarraibideak eskaini.	Drive, informatika gela, IKT arduraduna	Irakasle guztiak	2024/06/01	Prozesuan (%60-79)
Jarraipena egin bertan lanean ari direla ziurtatu.	IKT arduraduna eta drive	Irakasle guztiak	2024/06/01	Prozesuan (%60-79)



4. PROIEKTUAREN EBALUAZIOA

	Helburua	Noiz ebaluatu	Nola ebaluatu	Nork ebaluatu	Betetze maila	Hobetzeko proposamenak
LG	HH, LH eta DBH etapetan teknopedagogiarekin lotutako baliabideak aztertu eta formakuntza plan bat garatu 2023-2024 ikasturtean irakaslegoaren % 80ak formakuntza hauek jaso ditzan.	2023-2024 ikasturtean ebaluaketa amaieretan behatu eta ikasturte amaieran (ekaina) ebaluatu	Irakaslegoari galdetegi bidez galdetu formakuntzak jaso dituen eta hauen baliagarritasuna zein mailakoa izan zaien	Zuzendaritza taldea eta IKT arduraduna		
II						
GP	Irakasleen prestakuntzak aurrera eramatea maila guztietan, etapa bakoitzeko (HH-LH-DBH) irakasleen % 80k teknopedagogiarekin lotutako bi baliabide berriren formakuntza jaso eta 2023-2024 ikasturtearen azken hiruhilekoan erabiltzen hasteko.	2023-2024 ikasturte hasieran (iraila - urria) behatu eta ekainean ebaluatu	HH-LH-DBH irakasleen % 80k teknopedagogiarekin lotutako bi baliabide berriren erabilpena ezarri duten aztertu eta hauen erabilgarritasuna aztertu	Zuzendaritza taldea eta IKT arduraduna		
EJ						
EC						
EN						
AZ						
IB	Ikastolako zerbitzari fisikotik zerbitzari digitalera dokumentazioa migratuta edukitzea 2023-2024 ikasturtearen amaierarako irakasle zein administrazioko langileria %100a zerbitzari digitalean lan egiteko.	2023-2024 ikasturte amaieran ebaluatu baina kurtso osoan zehar behatzen aritu	Dokumentazio osoa migratu den aztertu eta honen erabilpena erabat zerbitzari digitaletik dela zihurtatu	Zuzendaritza taldea eta IKT arduraduna		